



Jose Luis Etxebarria
omenduko dute
ostegun honetan,
19:00etan Basteron

Trantsizio garaiko hilketen kronika Urnietan eta Andoainen ikusgai

1979-1981 epean Andoaindik Astigarragara bitartean gertatutako hilketen kronika egiten du "Heriotzaren triangelua" dokumentalak.

Urnietan datorren asteartean ikusi ahal izango da Lekaion; Andoainen, berriz, urtarrilaren 12an. Urnietako saioan, bertan izango dira Imanol Laburu eta Joxe Mari Salinas dokumentalaren egileak.

Zerk mugitu zaituzte dokumentala egitera?

Imanol Laburu: Ni hernaniarra



Dokumentalaren kartela. Datorren asteartean Saroben eskainiko dute.

naiz, eta nahiz eta gaztetxoak izan orduan, ondo gogoan daukat urte haietan ze giro bizi izan zen. Gainera, dokumentalean testigantza ematen duen Mikel Salbadarren ikaskidea izan nintzen eta oso presente eduki dut beti berak eta bere familiak sufritu zuten drama, euren aita Andoainen erail zutenean.

Gertakarien kronika dokumentalera eramateko ideia aipatu nion Joxe Mariri behin, eta horrela hasi ginen lanean. Argi geneukan hasieratik zein izan behar zuen helburua: gertakari haiek guztiak ezagutu zituztenei oroimena freskatzea eta ezer ez dakiten ondorengo belaunaldikoei haien berri ematea.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

Gazteleku-Amezketan, igandean Arraten

Euskal Herriko Kluben II. Txapelketa Nazionalaren final zortzirenetako itzuliko partida igande honetan jokatuko dute Arraten, 11:30ean hasita. Joanekoan 1-2 irabazi eta gero, andoaindarrak aurrerapauso bikaina emateko moduan daude. Zaletuen laguntzarekin errazagoa izango da.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Folk jaialdia igande honetan Basteron

Andoaingo Hogar Extremeñok antolatuta, eta Andoaingo Udalaren laguntzaz, Imanol Iribarren musikariak eta Laket musika taldeak Extremadurako folkloreak hainbat pieza egokitu dituzte euskal doinu eta hitzetara. Jaialdi berezia izango da. Kontzertua Andoaingo 400. urteurreneko azken ekitaldietakoa izango da.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

"Zuria, gure erara", igandean



Urnietan sortu eta garatutako dantza ikuskizuna Donostian taularatuko dute, igande honetan Antzoki Zaharrean iluntzeko 19:30ean hasita.

Egape dantza taldeak, **Anabasa** musika taldeak eta **Marizulo** kultur taldeko hainbat kidek "Zuria, gure erara" Donostian taularatuko dute. Antzerkia, musika eta nagusiki dantza uzartzen dituen ikuskizuna da. 2015eko urtarrilean, Saroben

arrakasta handiarekin aurkeztu zuten Juan Ignazio Iztueta kultur gilearen bizitza biltzen duen lana. Igande honetan, urnietarrek eta oro har gipuzkoarrek ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Abenduaren 9tik urtarrilaren 5era arte Eguberrietako zure sorta lor ezazu Andoaingo denda eta saltokietan erosiz

ESKULANGINTZA AZOKA
Abenduak 12, larunbata
10:00-14:00 Goikoplazan

SALKIN

“HERIOTZAREN TRIANGELUA” IKUS-ENTZUNEZKOA ESKAINIKO DUTE URNIETAN, DATORREN ASTEARTEAN

“Bazen garaia, esan digute askok”

Saroben abenduaren 15ean eta Basteron urtarrilaren 12an eskainiko duten ikus-entzunezkoak Batallon Vasco Español eta antzekoen trama biltzen du.

Egileek apal-apal egin dute lan, eurek sortutako Tirabira ekoizpen etxearen bitartez. Euren helburua ez da dirua egitea izan, gertaerei zabalkundea ematea eta ikusleengana iristea baizik.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Hernanin estreinatu duzue dokumentala. Zer moduz erantzun du jendeak?

Imanol Laburu: Emanaldi bat baino gehiago izan dira bertan, 2014ko ekainean eta urrian, eta pozik gaude oso erreakzio onak jaso ditugulako. “Bazen garaia” entzun dugu maiz, nahiko ahaztua zegoen historia jasotzeko premia zegoela adierazi nahian. ETB2n ere emititu zuten urtarrilean, eta oso audientzia ona eduki zuen.

Biktimen senideen testigantza ugari tartekatu duzue dokumentalean...

I.L.: Oso kontuz ibili gara, gai konplexua eta sentiberatasun handikoa dela jabetuta. Ez genuen sentsazionalismoan erori nahi. Emaitza euren gustukoa izatea nahi genuen, eta lortu dugula iruditzen zaigu. Eurenztat aurre estrainaldia antolatzen genuen, eta oso gogorra egin zitzairen arren, gustatu zitzaizela adierazi ziguten.

Gure asmoen berri jakinarazi genienez, hasieran, normalak diren errezeloak eragin genituen eurengan. Baina berehala ulertu zuten ez genituela bazterrik nahastu nahi, geure historiaren pasarte odoltsu bat jakinarazi baizik.

Zer moduz daramate familiar baten heriotza, hogeita hamar urte baino gehiago igaro eta gero?

Joxe Mari Salinas: Denetik sumatu dugu, normala denez. Orokorrean, eurenztat drama familiar handia izan zela onartzen dute baina baita orain urte askoko gauzak direla ere. Gogor berrekin diote bizitzari, ahaztu gabe familiarraren oroitzapena, noski. Tartean, badira kamera aurrean testigantza emate hori zer den dakitenak Jaurlaritzaren bizikidetzari buruzko programaren baitan. Baina aldi berean, badira egundoko trauma hura bazter



Dokumentalean eskualdeko gertakari odoltsuak oroitarazi nahi izan dituzte Laburu hernaniarrak eta Salinas lekeitiarrak.

batean utzi zutenak nola edo hala, gaizki konpondutako istorio pertsonal baten antzera, tabu baten antzera.

Gertakizunei buruzko errekreazioak egin dituzue dokumentalean zehar...

J.M.S.: Oso telebista irudi gutxi dago orduko artxiboetan; RTVEk badauka zerbait, hura eskuratzea nahikoa zaila zenez, errekreazioaren bidetik jo genuen. Bi gau oso igaro genituen grabatzen Astigarraga aldean. Iturbide eta Zabalauren aurkako epaiketan atera ziren detaileetan oinarritu ginen horretarako. Dokumentu interes-

garriak izan zitezkeelakoan errodatu genituen.

Hiltzaileek erabilitako seat 127 autoak gidatzen du hilketen kronika...

I.L.: Ederki kosta zitzaigun halako auto zaharra topatzea. Behin, txirripaz, auto zaharren rally batean han non ikusi genuen seat 127 bat. Gidaria zumaiar bat zen, eta harekin agudo egin genuen kontaktua. Ondoren, Zabalauren papera interpretatzera animatu eta guzti egin zen!

Heriotzaren triangeluak, benetakoz izua zabaldu zuen Buruntzaldeko herrietan bolada bate-

an... Epaietarekin, justizia egin zela iruditzen al zaizue?

I.L.: Hipotesien eremuan sartzen gara, baina bere garaian esan izan zen bazirela pertsona gehiago sartuta, luzea zela Batallon Vasco Españolen eta antzekoen trama, estatuaren inplikazioa eta guzti. Hor dago Medrano damutuak egin zuen idatzia izen-abizen mordoa emanez... Kontua da Iturbide eta Zabala atzeman zituztela beste erremediorik ez zeukatelako nonbait, eta epaietaren ostean kasua amaitutzat eman zutelako ofizialki. Ezin izan zen gehiago demostratu, hor moztu zutelako.

Dokumentala ikusteko aukerak eskualdean:

- **Abenduak 15, asteartea:**
19:00. Urnieta, Lekaio. Ondoren, egileekin solasaldia.
- **Urtarrilak 12, asteartea:**
19:00. Andoain, Bastero.

Hitzaldia:

- **Urtarrilak 18, astelehena:**
19:00. Andoain, Bastero. Mikel Aramendi kazetariarekin solasaldia: “Franco osteko estatu terrorismoa”

Zer esango zeniekete urnietarrei dokumentalera hurbil daitezene?

I.L.: Egia da Iturbide eta Zabalauren ekintza eremua Andoaindik Astigarragara luzatu bazen ere, urnietarrik ez dagoela biktimen artean; hori bai, Antimasbere hernaniarra salesiastarren eskola parean erail zuten, eta Joxe Ramon Ansa andoaindarra Xoxokako bidean. Datu horien gaitetik, hala ere, kontuan eduki behar da terrorearen estrategia zonalde osoan zabaldu nahi izan zutela eta urnietarrik ere ez zirela libratu horretatik. Urnietar ugari egongo da kapitulu izugarri hura oso gertutik bizi izan zuena, eta gazteagoei ere ez zaie gaizki etorriko aurrekoiei, etxetik gertu, zer gertatzen zitzairen jakitea. Euskal Herriaren historia hurbilaren zati bat da dokumentalak kontatzen duena, ahaztu behar ez genuena.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

“HERIOTZAREN TRIANGELUA” IKUS-ENTZUNEZKOA ESKAINIKO DUTE URNIETAN, DATORREN ASTEARTEAN

Urte ilun haien kronologia

70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hasieran, estatuko eskuin muturreko talde armatu franko (Triple A, Batallon Vasco Español, Guerrilleros de Cristo Rey...) aritu ziren Euskal Herri osoan, erail-

ketak, egoitza eta ondasunei erasoak, mehatxu pertsonalak..., burutuz. Horiek denak ezkutatu egin ziren 1983an, GAL erakunde armatua plazaratu zenean.

Hilketak

- **1977/10/07.** David Salvador hernaniarra (45 urte). Taxista. Ezkondua eta bi seme txikiren aita.
- **1979/05/07.** Joxe Ramon Ansa andoainarra. Upategi baserriko semea. 17 urte, ezkongabea.
- **1979/09/28.** Tomas Alba astigarra-garratarra. Donostiako zinegotzia.
- **1980/04/19.** Felipe Sagarna hernaniarra. Musikaria.
- **1980/09/07.** Migel Mari Arbelaitz eta Luis Mari Elizondo hernaniarrak. Langileak.
- **1980/11/14.** Joaquín Antimasbere hernaniarra. Langilea.
- **1981/03/03.** Javier Ansa andoainarra. Antzizu baserriko semea. Ezkongabea. Langilea.
- **1981/06/26.** Antonio Murillo hernaniarra. Langilea.

Frango hil osteko urteetan talde ultraeskuindarrek gogor kolpatu zuten Euskal Herria, eta bereziki Buruntzaldea 1977-1981eko epean. David Salvador hernaniarra izan zen estatua-aren aparatuekin zeharkako edo zuzeneko lotura zeukaten talde horien lehen biktima Andoainen. Beste zazpi biktima zenbatu ziren ondorengo hilabeteetan.

1979ko Santakruzetan, Joxe Ramon Ansa gaztea, gauez atxilotu eta Xoxokako bidean erail zuten bi lagunek. Andoingo gizartea hankaz gora jarri zuen Upategi baserriko semearen heriotzak. Politikan harremanik ez zeukan gazte apal gisa definitu zuten, eta samina, amorrua eta izua nagusitu zen andoaindarraren artean. Sentimendu horiek ziren, hain zuzen, egileek zabaldu nahi izan zutena.

Ordurako, indarkeriarekin zerikusia zuten makina bat gertakizun gertatu ziren Andoainen. Besteak beste: paisanozko guardia zibilek Juan Inaxio Irulegiri tiroa eman zioten belauneari; Jose Mari Arruti harrapatu eta kalean bertan galdeketa egin zioten; zenbait manifestazio baketsu indarka eraso zituzten; Iñaki Arin preso ohiaren etxea tirokatu egin zuten; Gomez eta Elzaburu familiek heriotz mehatxuak jasateaz gain, euren okindegia eta ardotegiak bospasei atentatu jasan zituzten (sua eman, tirokatu...); Zubillaga anaia autoak erre zituzten; Aranaztegi baserria tirokatu eta bere belar metak erre zituzten; Salvadora Roldanen etxearen aurka molotov koktela jaurti zuten...

Ansaren hilketak berehalako erreakzioa eragin zuen Andoainen. Manifes-

tazio jendetsua egin zen biharamunean, eta talde faxistak desegitea eta Andoaingo guardia zibilen kuartela ikertzea eskatu zen bertan. AP eta UCD salbu, gainerako Andoaingo alderdi politiko guztiek agiri bat kaleratu zuten: Ansaren erailketa Madrilgo gobernuak Euskadin zeraman jokaera errepresiboaren barruan kokatu eta guardia zibilen eta inkontrolatuen arteko ustezko harremanak salatu zituzten, besteak beste.

Udaletxean ez ohiko batzarra egin zen eta hiru puntuko mozioa aho batez onartu zen. Ansa familiari samina eta elkartasuna luzatu ostean, herrian nagusi zen sentimendua jaso nahi zela adierazi zen, eta horregatik, talde faxistak atxilotzea eta estatuko instituzioen depurazio sakona exijitu zitzaion Madrilgo gobernuari. Azkenik, Gipuzkoako gobernadoreari eskaera zuzena egin zioten: herriko kuarteleko kideen jokabide errepresiboak argitzeko, bertako arduradunak ikertzeko eta horietako gaiztoenak herrikanporatzeko, eta bertan geratzen zirenak alkatearen agindupean jartzeko eskatu zituzten gobernadore zibilarri.

Mozioak haserre bizian jarri zuen Antonio Oiarzabal gobernadorea, eta bere bulegora deitu zituen zinegotzi guztiak biharamunean. Frogak aurkezteko eskatu zieten zinegotziei.

Ondorengo asteetan, alderdi politiko horiek, sindikatuek eta herriko hainbat gizarte eta kultur elkarteek batzordea osatu eta dossiera atondu zuten abendurako. Dossierak herritarren lekukotzak jasotzen zituen, Andoainen gertatutako indarkeria ekintza mordoa zehaztuz. Azken orrialdean, Ignacio Iturbide *Piti* herritarren ibilbidearen berri ematen zen. Estatuko aparatuekin eta herriko guardia zibilekin zeukan harremanak zituen hizpide txostenak.

Kolpatutako herrietan kale mobilizazioak, grebak, udalen erabakiak, lekukotzak, dossierak..., ez ziren aski izan, eta indar parapolizialen hilketek eta indarkeri ekintzek jarraipena izan zuten Buruntzaldean hurrengo bi urteetan.

ITURBIDE ETA ZABALAREN ATXILOKETA

1981ko martxoaren 3an, Jabier Ansa hil zuten, Krafft lantokiaren parean, Antzizu bere baserriatik gertu. Hurrengo egunean, Ignacio Iturbide eta Ladislao Zabala donostiara atxilotu zituzten, Buruntzaldean hainbat hilketa egin izana leporatuta.

1985eko ekainean biak epaitu egin zituzten; zazpi hilketen errudun jo zituen epaileak (Joxe Ramon Ansa lehena, Jabier Ansa azkena) eta 231 urtera zigor-

tu zituen. Kartzelan ez zituzten hamar urte egin. 1998az geroztik, Iturbide zenbait alditan atxilotu egin zuten banku lapurretetan parte hartzeagatik. 2013ko apirilean Artxandako parajeetan hilik topatu zuten. Zabala, berriz, 2015eko uztailaren hil zen eta Madrilgo muturreko eskuinekoek omenaldia eskaini zioten.

Bi ultraeskuindar horien heriotza eza-gutu bezain pronto, antzeko pentsamen-dua eduki dute garai beltz haiek eza-gutu eta pairatu zituzten herritar askok: estatu sekretu ugari eraman zituztela beraiekin.



Andoainen heriotzak salatzeke egin zen manifestaziotako bat.

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende langilea, lana sortu eta gure kaleak bizirik mantentzen dituen.

HERRIKO DENEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ERKIDARREN SAHARAREN ETA
LORRIKATZEAREN ENDA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
ECONOMÍA Y FOMENTO

San Tomas eguneko azoka Kontzejupean, hilaren 21ean



Usadiozko sagardo lehiaketa, Urnietako San Tomas eguneko bereizgarrietakoa.

San Juan plaza eta Kontzejupea herritarren bilgune bilakatuko dira datorren abenduaren 21eko arratsaldean, Iñistorra elkarteak antolatuta egingo den festa dela eta. 17:00etatik, 20:30era luza-tuko da jaia.

Egitaraun ez dira faltako, jadanik ohiko bihurtu diren txistorra eta sagardo dastaketa, sagar tarta lehiaketa, saskiaren zozketa, gaztaren kiniela, taloak, gaztainak, eta eguneko ekitaldi nagusia izango den VII. Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa. Arratsaldea alaitzeko, bertan izango dira Urnietako Lurdes Iriondo Musika Eskolako trikitilari gazteak.

VI. SAGAR TARTA LEHIAKETA

Sagar tarta lehiaketa egingo da seigarren urtez. Bertara aurkezteko, aurrez etxean tarta egin eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitartean udaletxeko arkupeetara eramatea nahikoa izango da. Parte hartzea irekia izango da urnietarrentzat zein kanpotarrentzat. Partaide bakoitzari txanpain botila bat

emango zaio ordainetan, eta txapelketako irabazleak sari bikaina jasoko du. Bigarrenentzat ere izango da sariarik.

VII. URNIETAKO USADIOZKO SAGARDO TXAPELKETA

Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa egingo da zazpigarren urtez. Bertara aurrez daitezke, etxeko kontsumorako sagardoa egiten duten Urnietako baserri eta norbanakoak. Parte hartzaile bakoitzak zortzi botila aurkeztu beharko ditu. Izena emateko epea irekita dago, honako telefono zenbakira deituta, 685 56 17 18 (Joxeba).

GAZTAREN KINIELA, GURIA ETA KANTOI TABERNETAN

Aurreko urteetako moduan, aurten ere gaztaren kiniela egiteko aukera izango dute herritarrek. Euro baten truke egin daiteke kiniela. Gaztaren pisua asmatzen duenak gazta etxeratuko du. Santomas egunera itxaron gabe, kiniela bete daiteke dagoeneko Guria eta Kantoitabernetan.

Ikuskizuna igande honetan eskainiko dute 19:30ean hasita

“Zuria, gure erara” Antzoki Zaharrean

Datorren igandean Kutxa Fundazioaren eskutik ikuskizuna eskainiko dute. Dantza, musika eta antzerkia dira ikuskizunaren osagaiak. Dantza, **Edu Muruamendi** azek zuzentzen duen Egape dantza taldearen eskutik dator, musika arloaz Anabasa taldean **Jon Unanue** urnietarra ikusteko aukera izango da.

Ordu eta laurdeneko iraupena duen ikuskizunak, Juan Ignazio Iztueta “Zuria” (1767-1845) zaldibiarren bizitza luze bezain bete jorratzen du. Dantzari fina, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen, hainbat lan idatzi zituen euskaraz...

Donostiako emanaldiaren atarian, Aiurrik **Jaione Jauregi** ikuskizunaren koordinatzailearekin hitz egin du: “Lanik potoloena aurrez Saroben eta Andoingo Basteroko emanaldietarako egina geneukan, baina, adibidez, dantzari batzuk ordezkatu beharra izan dugu, eta Egape taldeko dantzari berri bat eta Aukeran taldeko bi izango dira igandean oholtza gainean. Oraingo lanik handiena musika eta dantzaren arteko uztartze hori lantzea izan da. Pardaideak oso gustura etorri dira, baina ez da erraza horrenbeste jende berririo elkartzea”.

Donostiako emanaldia Kutxa Fundazioari esker gauzatuko da “Urnietako emanaldia ikusi ondoren, Donostiara eramateko interesa erakutsi ziguten. Hasieratik gure asmoa izan zen ikuski-



Urtarrilean arrakasta handiarekin taularatu zuten Urnietako Saroben.

“Ikuskizun eder bat topatuko dute. Bide batez, Iztueta-aren biografia ezagutuko dute modu oso entretenigarri eta atseginean”
Jaione Jauregi

“Donostian izateak urduritasun puntu erantsi bat emango digu, ardura handia delako. Ohi bezala ondoen egitera aterako gara”
Antton Jauregi

zun hau herrira ez mugatzea, eta igandeko emanaldiarekin aurrerapauso hori ematea behintzat lortuko dugu”. Ikusleak zer aurkituko duen galdetutakoan, Jaioneren erantzuna argia da: “Ikuskizun eder bat topatuko dute, eta bide batez, Iztueta-aren biografia ezagutuko dute modu oso entretenigarri eta atseginean”.

Bere aldetik, **Antton Jauregi** jakinarazi duenez, igandeko ikuskizuna azken emanaldia izango da: “Pena izugarria ematen dit. Musikariak duela bi urte hasi ginen lan hau prestatzen, eta lan luze horren ondoren, gustatuko litzaiguke emanaldi gehiago eskaintzea, baina, besteak beste, kontuan izan behar da oso zaila dela denok elkartzea,

eta emanalditik emanaldirako tartea handia denean makinaria osoa martxan jartzea ere erruz kostatzen dela.”

Emanaldia Donostian izateak duen garrantziak galdetutakoan Anttonek zera adierazi du: “Donostian izateak urduritasun puntu erantsi bat emango digu, ardura handia delako, baina, gu beti joaten gara gauzak dakigun ondoen egitera, beraz, alde horretatik ez dut uste emanaldi ezberdina izango denik.”

SARRERAK SALGAI

Ikuskizunera hurbildu nahi duenak sarrerak erosteko bi aukera dituzte, internet sarean, Kutxanet bidez, edota, egun berean, Antzoki Zaharreko leihatilan.

Super H elkartearen ipuina aurkeztu dute



“Super H, hontz zuria- ren lurraldean” liburua aurkeztu du SuperH taldeak. San Juan de Dios ospitaleko eta Bionostiatiko ikertzaileekin ari

dira lanean, eta ikerkuntza onkologikoan jarrai dezaten laguntza ekonomikoa lortu nahi dute. Udalak babesa adieraz dio ekimenari.

Antia lehiaketa, sari banaketa ekitaldia



Saroben Antia literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zuten. Horra, palmaresa: **Gazteak:**
1. Maddi Iztueta.

2. Josu Ginés.
3. Iosune Larrayoz.
Haurrak:
1. Oihana Pagola.
2. Amets Karrera.
3. Alaitz Karrera.

Carmonari laguntzeko apaingarriak

Eguberriotan **Markel Carmonari** laguntzeko egitasmoa jarri dute martxan Urnietan. Zuhaitzetako apaingarriak erosita, Markeli laguntza emango zaio gaixotasunari aurre egiteko behar dituen behar eta errehabilitazioetan. Lekar eta Eder dendetan eros daitezke; salgai daude eta txikiak 3 eurotan eta handiak 5 eurotan.

Horrez gain, abenduaren 14an merkatu



solidarioa egingo da Presentación de María ikastetxean urtero bezala, baina aurten, bertan lortzen den diru guztia Markeli bideratuko zaio. Gainera, 16:30etik 17:30era Porrotx pailazoa bertan izango da.

“BASQUEXTREMFOLK” IZENKO JAIALDIA IGANDE HONETAN BASTERON, 12:00ETAN HASITA

Extremadurako eta Euskal Herriko folkloreaken uztarketa



Andoaindik Hogar Extremeñoek antolatuta, Andoaindik Udala-ren laguntzaz, Imanol Iribarren musikariak eta Laket musika taldeak Extremadurako folkloreaken hainbat pieza egoki-

tu dituzte euskal doinu eta hitzetara. Igandekoa mendeurreneko ekitaldien egitarauan kokatu dute, Andoaindik artista askoren parte hartzearekin egingo dena.

Basquextremefolk emanaldiak entzuleen harridura eragingo duela aitortu dute antolatzaileek. Euskal Herriko eta Extremadurako folkloreak ikuspuntu berrizaille batetik jorratuko dira, eta biak fusionatzearen emaitza izango da.

Bi zati izango ditu emanaldiak. Lehenbizikoan, Soinuak musika eskolako musikariek eta **Alberto Agirre Abesbatzak** Extremadurako kantutegiako lau abesti interpretatuko dituzte (*La Jota de la Siberia, la Jota del emigrante, La Jota de Guadalupe eta El candil*). Zenbait abestitan **Hogar Extremeño**ko dantzariak dantzan jarriko dituzte.

Bigarrenengoan, **Laket** musika taldearen txanda helduko da. Extremadurako sei doinuri euskal ukitua itsatsiko diote. **Imanol Iribarren** musikariak egin ditu moldaketa lanak. “Euskal folkloreaki ukitu moderno emateko joera eduki du talde honek jaio zenetik, eta ederki asko moldatu gara ikuskizunera”, halaxe aitortu du bertako bateria den **Iñigo Muñozek**. “Erronken zale gara, eta oraingoan, izugarri erakarri gaitu Extremadurako jota bat euskal fandago batera eramateak, esate baterako”. **Jon Eskudero** bertolariak, bertotan jardungo du ikuskizunean zehar; “*La*



Entseguko argazkian ikus daitekeenez, partaide ugari bilduko dira Basteroko taula gainean.

Bi kulturen artean egon den harreman naturala irudikatu nahi dute

cancion del emigrante” abestiaren bertasio askea egingo du.

EMIGRANTE BATEN IBILERAK

Emigrante baten historia izango da bi zatiak harilkatuko dituen ideia. Hogar Extremeño-ren izenean ikuskizuna bultzatu duen **Juanfe Moyanok** adierazi duenez, “Extremadura utzita 60ko hamarkadan Andoainera

etorri, eta bertan ze jende eta zer kultura topatu zuen irudikatu nahi izan dugu. Horretarako, antzerkia erantsi diogu ikuskizunari”. Hain zuzen ere, **Katramilako** antzezleei egokitu ko zaie antzeppen hori.

Moyanoren hitzetan, bi kulturen artean egon den harreman naturala irudikatu nahi da historia horrekin: “Extremaduratik jendea etorri zen eta bai horiek eta baita horien hurrengo belaunaldiak ere, Andoainean integratu egin dira. Bertakoak dira, eta gaur egun, naturaltasun handienarekin

bizi dute jatorrizko eta hemengo kulturen arteko nahasketa”.

Basteron bilduko diren ikusleentzako sentsazioen bila osatu dute ikuskizuna, hori esan du Moyanok. “Jatorriz extremeñoa denak, bere-bereak sentitzen dituen abestiak azkar identifikatu ditu, baina aldi berean, badagoela zeozer ezberdina antzemango du. Jatorri euskalduneko horri ere beste hainbeste gertatuko zaio euskal musikaren erritmoekin. Azkenean, harridura sentimendu hori probokatu nahiko dugu ikuskizunarekin”.

Sarrerak 5 eurotan salgai Delgado, Ermaitza eta Ataria Udal bulegoetan

Escivi eskolako ikasleek koordinatuko dute ikuskizuna. Gidoia atondu dute eta beraien esku geratu da bertan ikusiko diren bideoen kudeaketa ere. Emanaldia Basteron izango da, igande honetan eguerdiko 13:00etatik aurrera. Sarrerak 5 eurotan jarri dira, eta Delgado eta Ermaitza liburudendetan eta udaletxeko Atariko bulegoetan eskura daitezke.



Lan berriaren aurkezpen emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)

ABENDUAK 19, LARUNBATA

Saio bakarra: 17:00etan

Sarrerak: Aurretik 7 euro. Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako: ☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

ARGIA

Andoain Laburrean



“Andoain Laburrean” film laburren lehiaketaren sari banaketa egin zuten pasa den ostegunean, abenduaren 3an, Basteron. Koldo Almandoz, Asier Altuna eta Jon Verdejok osatu dute epaimahia, eta sari banaketara Almandoz eta Verdejo hurbildu ziren. Lehiaketa bi mailatan berezita antolatu arren, aurkeztutako lan guztiak 18 urtetik gorakoena zirenez, maila horretan bi sari banatu beharrean hiru banatu ziren.

1. Saria: “Goiko borda”
300 euro eta 400. urteurreneko materiala.
Egileak: Iñigo Salaberria, Beatriz Lara, Borja Subiza, Ander Beizama eta Irving Bonet.

2. Saria: “Ezkerrekoan”
150 euro eta 400. urteurreneko materiala.
Egileak: Aner Ansorena, Asier Elgezua, Andrea Gomez, Andrés Arévalo, Asier Iturbe, Unai Cobos, Enara Martínez, Iker Gascón, Nagore Pérez, Nagore Zalakain, Enara Suárez eta Lander Otaola.

3. Saria: “Iraganeko giltza”
75 euro eta 400. urteurreneko materiala.
Egilea: Iruñe Elizegi.

Sari horiez gain, Elkar argitaletxeak, Bikoitz argazkikendak eta Ormendi kirolendak eskainitako materialaren zozketa egin zuten parte hartzaile guztien artean.

Bertso poteoa



Aurreko ostegunean pintxo potean bertso doinuak entzun ziren hainbat tabernatan. Giroa alaitzen aritu ziren

Unai Muñoa, Ion Beloki eta Aritz Eskudero bertsolariak. Argazkian, Xaxi tabernan.

Carlos Garcíaren alde



Erromako epaileak andoaindarraren extradizioa agindu dezakeelakoan, haren senide

eta lagunek elkarretaratzea deitu zuten abenduaren 3an. Aske uztea eskatu zuten.

Ostegun honetan “Olazabalen Bidea Saria” ekitaldia Basteron

Jose Luis Etxeberriari aurtengo Olazabal saria

Jose Luis Etxeberria Urrutiak Andoaingo txistularien bandan eta Alberto Agirre abestaztan egin duen ibilbide luze eta oparoa hartu dute oinarrian aipamena egiteko garaian. Herriko zenbait erakundeetako ordezkariak osatutakoa da epaimahai hori. Andoaingo Caritas elkarteak antolatu ohi du sariketa, Andoainen gizarte ekintzaren eta solidaritatearen arloan nabarmendu den pertsona edo elkarteari esker ona agertzea du helburu.

Pozik hartu du albistea Etxeberriak, nahiz eta bizitza osoan erakutsi duen apaltasunari eutsi oraingoan ere: “Sekula ez zait gustatu nire burua nabarmentzea. Modurik isilenean eta diskretoenean egin izan ditut gauzak nire bizitzan. Ez dakit nola sentituko naizen horrelako ekitaldi batean, baina eskertzen diet nirekin gogoratu direnei, eta saiatuko naiz Olazabalen sariak eskatzen duen seriotasunari erantzuten”.

Andoaingo kantagintzan eta txistularien bandan Etxeberriak ekarpen handiak egin dituela azpimarratu nahi izan dute epaimahaikideek. Aldi berean, erantsi dutenez, beti erakutsi izan du prestutasuna eta eskuzabaltasuna Andoaingo herrian nahiz auzoetan ospatzen diren ekitaldi eta jaieetan.

Etxeberriak Andoainen musikari eskaini dio bizitza osoa, eta besteak beste, Andoaingo Udal Txistulari Bandaren eta Alberto Agirrerren sortzaileetakoa izan zen. 2008ko Sanjuanak zirela eta Aiurri eskaini zion elkarriketan adierazi zuenez, etxetik zetorkion txisturako joera. “Aitona, Angel Urrutia, txistularia genuen. Etxean beste inork ez zuen jotzen, eta nire artean “nik jo behar diat” esan eta hasi nintzen, etxeko tradizioa ez hausteko”. Horrela, hamasei urterekin, Inaxio Aizpurua herriko txistulari famatua izan zuen irakasle. Labordeko lantokian, txistulari koadrilarekin jardun zuen bolada batean. “Hango eskolan ikasita, baziren orduan txistua jotzen zutenak: Jose Goikoetxea, Pablo Etxeberria, Ramon eta Emilio Truchuelo anaiak, Pio eta Jose Mari Huizi anaiak... Horiek



Etxeberria omendu dute aurtengoa.

*“Sekula ez zait gustatu nire burua nabarmentzea. Modurik isilenean eta diskretoenean egin izan ditut gauzak nire bizitzan”
Jose Luis Etxeberria*

banda sendoa osatzen zuten. Baina utzi egin zuten denbora batera, eta nik bakarrik jarraitu nuen”.

Bera izan da, hortaz, Andoainen eta frankismoan, txistularien tradizioaren soka ez etetea lortu zuen pertsona, Aizpurua anaiekin batera. Horien grinari esker, herriko jai eta ospakizun berezietan txistularien soinua entzuten jarraitu ahal izan zen.

1963an jaio zen ikastolako haurrei txisturako zaletasuna irakasten ibili ziren, Jesus Mari Otamendi, Jose Antonio Zalakain eta hirurak. Joxe Goikoetxeak zirikatuta 1979an nola jarri zen Andoaingo txistularien banda kontatu zuen elkarriketa hartan: “Labordeko atera ginen garaian izan zen, 1979ko maiatzean. Baxoerditako lagunekin atera zen dena, badakizu. Nola ez zegoen txistularirik herrian, Goikoetxeak txistua jotzeko eta jotzeko eskatzen zidan. Bitartean, aldamanetik Fidel Arrietak esaten zigun: “zuek bai kontua eta zikina, baina ez duzue ezer egingo!”. Langabezian geunden eta, “oraintxe dek okasioa!”, esan eta ekin genion taldea osatzeari. Pio eta Jose Mari Huizi, Felix Martinez de Lezea, Ramon Mendiluze, Migel Mari Otamendi..., jendea biltzen joan ginen pixkanaka. Gero ikastolako Sabin eta Jon Mikel Mujika, Jon Lizarribar, Jaurregi, Xabier Ansa..., etorri ziren; horiei Huizi, Otamendi eta hirurok irakatsi baikenien

ikastolan. 1979ko Gabonekin batera atera ginen kalera”.

Alberto Agirre abesbatzaren sortze prozesutik ere ez zen oso urrun ibili Etxeberria: “Goikoetxea eta biok Pio Huizi tentatu genuen: “Hi, Pio, orain dakak okasioa, herriaren alde lan egin nahi badek, korua prestatzen. Guk lagunduko diagu, hik nahi badek.”

Hark baietz esan eta erretoire etxean entsaioak egin hasi ginen, 1981-1982an. Nahiko koru ederra izan zen hasierako urteetan, gazte jende askorekin”.

Abeslari eta zizendari lanak bete izan ditu zenbait urtetan Etxeberriak abesbatzan.

2008an musikarekin lotzen zion guztia uzteko asmoa agertu zuen: “72 urte dauzkat, eta bihotzetik hondatua; aldapan gora kosta egiten zait txistua jotzea... Felixek eta Migel Mari Otamendik esana didate: “hik uzten dekenean, guk ere utzi egingo diagu”. Behin baino gehiagotan ere erantzun diet nik: “izurratu behar dizuet oraindik, hor agoantatu behar dezue!”. Arituko ez banintz ere, ez nintzateke penatuko. 75 urterekin jubilatzen omen dira obispoak...”.

Gotzaiena betetzeko asmoz edo, poliki-poliki uzten joan da harrezkero. 2010an agintarien azken soka txistulari izan zen berarentzat txistulari gisa. Axeri dantzariak ere omenaldia eskaini zioten Sanjuan egunean Goikoplazan, 1976az geroztik etengabe parte hartu izanagatik dantzan. Hurrengo urtean, azken aldiz igo zen oholtzara, axeri dantzarietako doinua markatzeko asmoz.

Tarteka, baina, heldu izan dio oraindik musikarako temari; esate baterako, iazko Sanjuanetan, Salve Gorenean, abesbatza zuzendu zuen.

Ostegun honetan ospatu zena **Olazabalen Bidea Saria** ekitaldia, Basteroko auditorioan, arratsaldetik 19:00etatik aurrera. Ekitaldian zehar, Caritas elkarteak bost kide ohie orogarri berezia eman zieten. Hain zuzen, 1956an abian jarri zen Andoaingo Elizen arteko Caritas elkartearen eratze akta jasotzen duen pergaminua eskaini zitzaizkien. Era berean, Caritaseko bultzatzaile nagusienetakoa izan zen eta aurtengoa otsailaren hil den Jose Mari Olazabal Iñurritagoratu zuten.

ABENDUAREN 18AN BONBERENEAN, GAUEKO 22:30ETIK AURRERA

Katramilaren “Hil eta Bizi” ikusteko aukera berria

Katramila taldeak heriotzaren inguruko “Hil eta Bizi” antzezlanaren oiholtza gainera eramango du Tolosa-ko Bonberenean abenduaren 18an, gaueko 22:30ean

hasita. 16-19 urteko hamahiru lagunek parte hartuko dute antzezpenean, Kristina Ropero irakaslearekin batera.

Katramila antzerki eskolako gazteek interpretatuko dute obra. Lazko kurtsoan prestatu zuten eta ekainean Basteron aurkeztu eta gero, ziurrenik azkeneko aldiz, Tolosan arituko dira. Heriotzaren gaia jorratuko dute, modu natural batean. “Gure barnean baditugu kezka ugari, osasuntsu bizitzen uzten ez digutenak. Heriotza ezin dugu ekidin; baina bizirik gauden bitartean, egoera berari, era batera edo bestera, aurre egin diezaiogez. Hori da gure antzezlaren ardatza”, azaldu du irakasleak.

Antzezlaren oinarrian, Sergi Belbel kataluniarrak idatzitako “Morir... un instante antes de morir” gidioa dago. “Testua hiruzpalau urtez izan dut eskuartean; antzezlaren egitura gustuko nuen eta heriotzaren gaiak zirrara pizten zidan”, azaldu du Kristinak. Hala, gidioa moldatzeari ekin zioten; testua euskaratu, moztu, moldatu eta beste zentzu bat eman arte.

Moldaketa horixe izan da prozesu osoaren atalik zailena; heriotzari beste zentzu simboliko bat emanez, *Hil eta Bizi* eraikitzea. “Bizitzan zehar hain-



Abenduaren 18an “Hil eta Bizi” antzezlanaren Tolosan eskainiko dute.

bat aldiz hiltzen gara, etengabeko hil eta bizian bizi gara. Benetako heriotzari buruz askotxo ez dakigu; hilik egon den inor ez baitzaigu esperientzia kontatzera etorri. Baina, noski, ingurukoak hiltzen ikusten ditugu. Oso gauza ulertezina iruditzen zaigu maite ditugunak inoiz fisikoki ikusteko aukerarik izango ez dugula onartzea”. Horregatik, prozesuan zehar, mundu ezezagun horretan naturaltasunez murgiltzea izan da zailena irakaslearentzat.

UNE MAGIKOAK

Iaz hasi ziren gazteak antzezlara prestatzen. Gazteen antzerki-

tailerra ordu eta erdikoa izanik, irudimena lantzeko, teknika ariketak egiteko, espazio eszenikoa lantzeko eta bestelako jarduerak burutzeko, “eskas” geratzen da. “Horrez gain, antzezlara bat prestatzea gehiegixko izan zitekeen; baina guztiok genuen gogo bizia antzezlara handi bat prestatzeko eta esperientzia hori elkarrekin bizitzeko”, adierazi du irakasleak. Aparteko orduak eskatuko zizkietela jakin arren, aurrera egin zuten eta buru-belarri ibili dira obra prestatzen.

Prozesu hori “magikoa” izan dela aitortu du Kristinak: “Lanean gustura eta ilusioarekin

aritu naiz; barre pila bat egin dut, adiskidetasun bikaina edukitu dugu, elkar laguntzen ibili gara... Niretzat izugarria izan da”.

ANTZERKIRAKO ZALETASUNA

Antzerkirako zaletasuna bada Andoaian. Horren lekuko da Katramila taldearen sorrera eta azken urteetan egin duen ibilbidea. Duela bost urte eman zituen lehen pausoak eta egun, 11 taldez osatuta dago. LH1 mailako haurretatik hasita, haur, gazte zein helduek osatzen dute taldea. Andoaindarrrez gain, eskualdetik ere gerturatzen dira: Asteasutik, Amasa-Villabonatik, Zizurkildik...


Irakasle lanetan **Miren Gojenola**, **Iker Etxarri** eta **Kristina Ropero** ari dira. “Antzerkia egiteko zaletasuna bada. Helduek urte mordo daramate, eta horrez gain, haur eta gazte asko ditugu”, azaldu du Kristinak. Antzerkia ikusteko zaletasuna, ordea, “eskasagoa” dela uste du. Dena den, baikor dago eta politikopoliki zaletasun hori zabalitzen ari dira. Itxaropentsu ageri da.

Sarrerak alde zuzenetik salgai, Katramilara deituta (5 euro): 688 710 097.



Arregi Gipuzkoako txapeldun

Beasaingo lehen ziklo kros proban **Asier Arregi** eta **Olatz Odriozola** Gipuzkoako txapeldun izan ziren. Asier Arregik hirugarren postu bikaina lortu zuen Hernandez eta Ruiz de Larrinagaren atzetik.



Igeriketa lehiaketaren itzulera

Aurreko larunbatean Buruntzaldea IKT taldeko alebinak Andoaian izan ziren lehiaketa, ligako 3. jardunaldian. Etxekoak, ohi bezala, oso txukun eta gogotsu aritu ziren egokitu zitzaizkien probetan. Egun berezia izan zen, berriro ere igeriketa Allurralderra itzuli delako. Aurten izango diren bi lehiaketetatik lehena ospatu zen.

deba 1 de

GABONETAKO DANTZA TAILERRA + 15 urte

Ez duzu probatu behar?

Abenduak 22, 23, 26 eta 28, 29, 30
10:00 - 12:00

ATE IREKIAK: Abenduak 30, 12:30

IZENA EMAN 12/18ra arte SAROBERA BERTARATUZ

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Mansel Larrazmendi
Kultur Bizkaria



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- "Rams el valle de los carneros" Larunbata, 12. 19:30, 22:00. Igandea, 13. 19:30. Astelehena, 14. 19:30, 22:00. "Los Cinco y el secreto de la pirámide". Larunbata, igandea. 17:00.

Urnietan

- Home hogar dulce hogar 16:00, 18:30. Abenduak 13, igandea.

Dantza

Urnietan, Sarobe

- Aukeran konpainiaren "Maurizia" ikuskizunaren entsegu irekia. 11:00. Dohainik. Abenduak 12, larunbata.

Urteurrena

Andoain

- Irunberri elkartearen 17. urteurrenean bertso bazkaria, DJ saioa, kantu kalejira... Abenduak 11 eta 12.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak.
Andoain: Gorospe.
Urnietan: Aguado (Astigarra-ga).

Antzerkia

Donostia

- "Zuria, gure erara" ikuskizuna Antzoki Zaharrean. 19:30. 10 euro. Abenduak 13, igandea.

Andoain, Bastero

- "Nuestras mujeres". 21:30. 15 euro. Abenduak 18, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- Antzerki tailerreko saioa. 20:00. Dohainik. Abenduak 18, ostirala.

Eguberriak

Andoain

- Eguberri atariko festa 10:00-14:00 Artisautza azoka Goikoplazan. 11:00-13:00 Merkatu txikia Zumea plazan. Abenduak 12, larunbata.

Urnietan

- Argiak pizteko ekitaldia. 18:00 Salesiar ikastetxea. Abenduak 17, osteguna.

Ikastaroa

Andoain

- Eskulanak eta Eguberrieta-menua prestatzeko. 15:00-17:00. Zuena. Abenduak 15, 16 eta 17.

Jaialdia

Andoain, Bastero

- "Basquextremfolk" musika eta dantza emanaldia. 12:00. 3 euro. Abenduak 13, igandea.

Hitzaldia

Andoain, Urgain

- "Errauskailuen toxikotasuna", Rodriguez Farre adituaren eskutik. 19:00. Abenduak 15, asteartea.

Musika

Andoain, Bastero

- Andoaingo udal musika eskolako banda. 20:30. Abenduak 11, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- Abenduak aste musikala, Musika eskolaen kontzertuak:
Abenduak 14, astelehena: 18:00 Musika tailerra, pianoa, perkusioa eta akordeoia.
Abenduak 15, asteartea: 18:30 Pianoa.
Abenduak 16, asteazkena: 18:30 Pianoa, klarineta, bonbardino, saxoa.
Abenduak 17, osteguna: 18:00 Musika tailerra II, pianoa, biolina, tronpeta, trikitixa, panderoa.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Beti bezain guapa eta langile jarraitzen duzu. Aze ama-amona daukagun!!! Zorionak eta muxu potoloak. Exekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Abenduaren 1ean **Mikel** Jimenez Torreci-lak urteko bat egin zuen. Aita, ama eta familia guztiaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Anek 6 urte beteko ditu abenduaren 14an. Muxuak etxeko partetik gure dantzari eta abeslariari.

ANDOAIN

ZORIONAK



Irribarre lotsati horiaskoz pozgarriago da, edozein loteria baino. **Maddi** ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Jon, aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK



Abenduaren 8an, **Adurrek** 3 urte. Etxeko partetik muxu goxo-goxoak zuretzat. Horrela jarraitu mattia!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zure 17. urteurrenean egun ederra pasa duzulakoan, muxu handi bat etxeko partetik. Aupa **Ander**, beti aurrera!

ANDOAIN

ZORIONAK



Handitzen, handitzen... **Aroa** etxeko printzesak 5 urte beteko ditu hilaren 17an. Segi beti bezain alai. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Euri** Zubizarreta! Abenduaren 19an urtebete egingo du. Muxu potolo bat etxeko partetik. Aupa Euri!!!

ANDOAIN

Pilota hitzordua Arraten


Abenduak 13, igandea

11:30. Arrate

Gazteleku-Amezketan

Euskal Herriko Kluben II. Txapelketa Nazionalaren final zortzirenetako partida garrantzia bizikoa da Andoaingo klubarentzat. Joanekoa aurreko astean jokatu zen Amezketan, eta han andoaindarrek ezustekoa eman zuten 1-2 irabazita.

Jon Eskuderok, 4terdian Egiguren hartu zuen mendean 18-13. **Julen Aizpuruk** 18-5 irabazi zuen Mendiaren aurkako partida eta azkenik **Gorka Oiarbide** eta **Unai Etxeberriak** 22-10 galdu zuten Labaka-Mendia I bikotearen aurka. Aipatzekoa da, bate-tik, Amezketako taldea Asperen harrobiko taldea dela eta bertatik atera direla besteak beste Altuna, Irribarria, Jaka eta debuta egin berri duen



Erostarbe. Andoni Alvarez pilota arduradunaren esanetan, "horrelako talde baten aurrean Andoaindarrek irabazteko aukera izatea, sekulakoa da. Irabazten duenak, Euskal Herriko zortzi talde onenen artean sartzeko aukera izango du eta horregatik dei egiten diegu andoaindarrei igandean frontoira joatera". Pilotazaleek, beraz, hitzordua dute igande honetan Arraten. Zorte on!

DARDOKA KLUBAREN EMAITZA IKUSGARRIA



Dardoka taldeko kideak Oropesa del Mar herrian izan dira bi mila jokalaribildu dituen dardo txapelketan. Gipuzkoatik urrezko domina eskuratu zuten artean dago **Joseba Unanue** Dardokako kidea. Harekin batera, Ivan Martinez, Jorge Cid, Asier Alonso eta Daniel

Oliver nabarmendu ziren. Emaita on horiei esker Hungarian 2016an jokatu den Europako txapelketa jokatzeko sailkatu dira.

Iker Revuelletak, klubaren hitzetan, Oropesako esperientzia "ikusgarria izan da, eta ezusteko atsegina urrezko domina lortzea", adierazi du.

Pala motza Urnietan

Abenduak 11, ostirala

20:00. Urnietan

Urnietan-Txost

Aurreko asteburuan kirol

jardunaldia ez zen oso oparoa izan. Ostiral honetan Gipuzkoako finalurreko partidak jokatu da. Zorte on!

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN